

60 ikasle konfinamenduan sartu dira azken 24 orduotan

28 bizikidetza-talde egonkorretako kideak bakartuta daude, guztien artean %0,80

Asteazkena, 2021ko Martxoaren 17a

Azken 24 orduotan Nafarroako 60 ikasle sartu dira konfinamenduan. Horiekin jada 547 dira bakartuta dauden ikasleak, guztien artean %0,88. Bizikidetza-talde egonkorrei dagokionez, 20 ikastetxeetako 28 taldeetako kideak daude bakartuta; guztien artean %0,80.

Azken orduotan konfinamenduan sartu diren ikasleak honakoak dira: Lizarrako Remontival ikastetxeko Lehen Hezkuntzako 11 ikasle, Iruñeko San Francisco ikastetxeko Lehen Hezkuntzako 6. mailako 14 ikasle, eta Iruñeko Sanduzelai ikastetxeko Lehen Hezkuntzako 6. mailako 14 eta San Jorge ikastetxeko Lehen Hezkuntzako 1. Mailako 17.